



# Mexiko Hiriko Sustapen Ekintzak 2018

## INFORMAZIO GEHIAGO:

Begoña Sevillano  
[bsevillano@hazi.eus](mailto:bsevillano@hazi.eus)  
Tfnoa. 946 030 330

Data: 2018tik irailaren 10etik 14ra arte

Tokia: Mexiko Hiria

Nori zuzenduta: Mexikar merkatuan presente dauden Euskadiko ardoa eta sagardoak ekoizten duten enpresei.

Parte hartzearen kostua: 600 € + %21 BEZ

Izena emateko epea: 2018ko ekainaren 29a

## DEIALDI HONETAN:

Merkatuari buruzko informazioa  
Sustapena zein sektorentzat da  
Mexiko Hirian sustatzeko jarduerak

Parte hartzaileen konpromisoa  
Parte hartzeko baldintzak eta kostua  
Izena emateko formularioa

Mexikoko 2015-2017 Urte Askoko Plan Estrategikoa amaitu eta itxi eta gero, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak merkatu hartara esportatzen ari diren enpresei **laguntzen jarraitu** nahi du.

Horretarako, Elikagaien Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko ekintzen barruan, HAZI Fundazioarekin batera, Sustapen jarduera hau antolatzen du, **Euskadiko ardoak eta sagardoak Mexiko Hirian sustatzen eta merkaturatzen laguntzeko** helburuarekin.





# Mexikar merkatuari buruzko informazioa

## MEXICAR MERKATUA

Mexiko estrategikoki kokatuta dago, 3.000 km baino gehiagoko mugarekin AEBekin, eta gutxi gorabehera 108 milioi biztanleko merkatu batekin. Munduko hamalagarren ekonomia da, Latinoamerikako bigarrena (Brasilen ondoren), eta helmuga nagusietakoa da Amerikako atzerriko inbertsioetarako.

Oro har, Euskadiko produktuek oso irudi eta balorazio ona dute mexikar kontsumitzaileen artean, eta, gainera, kalitate/prezio bikaina izaten dute.

**2017an, Euskal Herriak Mexikora 847.750 ardo litro** esportatu zituen, 5,43 milioi euroko balioarekin. 2016arekin alderatuta salmentek %6,5 behera egin zuten arren, Mexikoko merkatuak Euskal Herriko batez bestekotik gora egin du 2010etik. Mexiko 2017an hamaikagarren merkatu izan zen, orain arteko bigarren urterik onena 2016a kenduta. Mexikoko merkatua oso zuzendua dago **ontziratutako jatorrizko izendapeneko (BJI) ardoetara**, batez ere **ardo beltz eta gorrietara**. Euskal ardoetan merkaturatzeari dagokionez bigarrena BJI ontziratutako zuria da, azken urteotan erritmo handiagoan hazi egin dena.

Mexiko merkatua, berriz, prezio aldetik oso ondo posizionatuta dago. Izan ere, mundu mailako 4. herrialdea da.

Ardoaren Merkatuaren Espainiako Behatokiaren arabera, **Espainia 2017an** bolumenean **hornitzaile nagusiena** izan zen, Txileri aurre hartuz bi urteren ostean eta, balio terminoetan, lidergoa sendotu du. Espainiako ardo ontziratutakoetara zuzenduta dagoen herrialdea da, eta ez ontziratutakoetara. Hortaz, **Euskal Herri-rako oso merkatu interesgarria izan daiteke**.

## ZEIN SEKTOREARI ZUZENDUTA

Euskadiko ardoa eta sagardoa ekoizten duten hainbat enpresa presente daude mexikar merkatuan. Promozioa Arabako Errioxako ardoa, Txakolina eta Sagardoa ekoizten duten enpresei zuzenduta dago, **Mexikon inportatzailea badute eta dagoeneko merkatu horretara esportatzen ari badira**.

Xedea da dagoeneko produktua Mexiko sartzeko modu bat baduten enpresei laguntzea, hainbat sustapen ekintzaren bitartez. Parte hartzen duten upategiek jakinarazi beharko dute dagoeneko badutela Mexikon produktua sartzeko inportatzaile bat.

### DATUAK:

- **2017an, Euskal Herriak Mexikora 847.750 ardo litro** esportatu zituen, 5,43 milioi euroko balioarekin.

- Mexikoko merkatua oso zuzendua dago **ontziratutako jatorrizko izendapeneko (BJI) ardoetara**, batez ere **ardo beltz eta gorrietara**.



# Mexiko Hirian sustatzeko jarduerak

2018ko **irailaren 10etik 14ra** misio komertzial bat antolatuko da, zeinean Elikagaien Kalitate eta Industrien Zuzendaritzak, HAZI Fundazioaren bitartez, lagundu egingo dien EAEko upategiei honako sustapen jarduera hauen bitartez:

## **PRESTAKUNTZA PROFESIONALAK**

Xedea da inportatzaileek, banatzaileek eta bezeroek produktuak dastatzea eta produktuaren inguruan gaitzea, **Mikel Garaizabal** Sommelierren eskutik. Prestakuntza indibidualizatuak izango dira, sustapenean parte hartzen duten enpresetako bakoitzarentzat.

- ✓ Enpresari/upategiari dagokio **prestakuntzara gonbidatzen dituenen profila definitzea** eta prestakuntzarako **deialdia** egitea. Prestakuntzako parte hartzaileen profil posibleak: banatzaileak, banatzaileen komertzialak, haien bezeroak, sukaldaritza kateen ordezkariak eta erosleak, hotel kateetako erosketen arduradunak, gourmet dendak, ardotekek, etab.
- ✓ **Prestakuntza in situ** egiteko laguntza, inportatzaile, banatzaile eta bezeroentzat.
- ✓ Prestakuntzak **Mikel Garaizabal sommelierrek** emango ditu, enpresaren ordezkari baten laguntzarekin.
- ✓ Prestakuntzaren **iraupena enpresa bakoitzak zehaztuko du**, HAZI Fundazioaren laguntzarekin, eta sommelierri goiz edo arratsalde batez arituko da enpresa bakoitzarekin, agendaren arabera.
- ✓ Dastatu beharreko ardoa/sagardoa **enpresak/inportatzaileak jarriko du**.
- ✓ **Prestakuntzaren kokapena:** inportatzaileak eta enpresak proposatuko dute prestakuntza zein lekutan egin. Eusko Jaurlaritzak kokapena proposatu ahal izango du, enpresak lekua proposatu behar badu eta ez badu Mexikoko inportatzailearen laguntza horretarako.



# Mexiko Hirian sustatzeko jarduerak

## SHOWROOM – PRODUKTUEN ERAKUSKETA eta MASTER CLASS:

SHOWROOMaren helburua da **harreman berriak sortzea**, merkatuko operadoreen eta enpresa parte hartzaileen artean jada dauden **loturak sendotzeaz gain**. Publiko profesionalari baino ez dago zuzenduta.

- ✓ Erakusketaren helburuko publikoa dira merkatuko operadoreak (inportatzaileak, banatzaileak, handizkariak, denda espezializatuen kateak eta denda espezializatu independenteak), sukaldaritza eta gastronomiakoak (jattetxeak, sukaldaritza eskolak, sommelierrak, wine bar-ak eta pub-ak) eta komunikabideak (ardoan espezializatuak, banaketa sektorean, gastronomian eta life-stylen, komunikabide generalistak, eta ardo eta gastronomian espezializatutako kazetari independenteak).
- ✓ Sustapenean parte hartzen duten enpresen presentzia beharrezkoa izango da, upategiaren ordezkari baten bitartez, edo inportatzailearen edo banatzailearen bitartez.
- ✓ Enpresen inportatzaileek beren banatzaileak eta bezeroak gonbidatu ahal izango dituzte.
- ✓ Showroomaren formatua promozioan parte hartzen duten enpresek adostuko dute, euren beharrak ahalik eta ondoen asetzeko (mahai indibiduala, erakusketa/dastaketa...).
- ✓ Showroomean zehar master class bat egingo da komunikabide, prentsa espezializatu, kritikari gastronomiko, blogari eta abarrentzat. Master Class horretan aurkeztuko diren markak eta erreferentziak parte hartzen duten upategiek aukeratuko dituzte.
- ✓ Showroomaren amaieran, euskal produktuekin prestatutako koktel bat banatuko da.
- ✓ Showrooma Mexiko Hiriko erreferentziako kokagune batean egongo da, Polanco inguruan, parte hartzaileak errazago iristeko.

Sustapen hau zuzen garatzeko, Euskadiko Elikagaien Kalitate eta Industrien Zuzendaritzak Mexikoko bertako enpresa baten laguntza izango du, HAZI Fundazioko kide batekin batera.



# Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

## ENPRESA PARTE HARTZAILEEN KONPROMISOA

- Sustapenean parte hartzen duten enpresek proposatzen diren jardueretarako **produktua** jarri beharko dute.
- Enpresek konpromisoa hartu beharko dute **prestatuntzak eta horien deialdiak antolatzeko**, beren inportatzailearen eskutik edo beren kabuz.
- Enpresak HAZI Fundazioarekin koordinatuko dira prestatuntzak antolatu eta horien data eta ordua zehazteko.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Enpresa parte hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Dagokien Jatorri Izendapenean dauden ardoak egitea eta merkaturatzea.
- Euskadin sagardo naturala egitea eta merkaturatzea.
- Promoziorako materiala - katalogoak edukitzea.
- Erakusketan arreta emateko ahalmena –upategiaren ordezkari baten bidez, edo mexikar inportatzaile edo banatzailearen bidez–.
- Mexikar inportatzaile bat edukitzea.

## PARTE HARTZEAREN KOSTUAK

Promozio honetan parte hartzeko kostua izango da **600 € + %21 BEZ**



# Eusko Jauriaritzarekin parte hartzea

Izena emateko formularioa

Ordainketa agiria

Izena emateko epea: 2018ko ekainaren 29a

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainketa agiria bidaltzea: **bsevillano@hazi.eus** helbide elektronikora.

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzeko hurrenkeraren arabera egingo da.

## IZEN-EMATE FORMULARIOA BETE



Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira egingo diren sustapen elementu guztietara.

## ORDAINKETA AGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: **ES49 3035-0179-61-1791069900** Laboral Kutxa HAZI Fundazioaren izenean

**Kontzeptua:** "Enpresaren izena + MEXICO 2018"

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko du, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

**Izena emateko epea:** 2018ko ekainaren 29ra arte